

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko ekainak 5 / II. urtea / 27. zenbakia



Metropoli Forala



FELIPE RIUS

Urrutitik ikusi ditut Negu Gorriak, nahasketa mahaia baino atzeragotik, eta horrek zahartzen ari naizela frogatzen duela pentsatu dut —obsesio bat bihurtzen ari da hau, psikoanalistari kontatu beharko diot, baina aurretik dietarioan apuntatuko dut: alzheimer alu honek laster izorratuko nau—. Krapula bat naizela diote lagun batzuk, eta pentsatzen dute horregatik gustatzen zaizkidala gazteak. Nik badakit hori zahartzaroaren beste seinale bat dela eta Anaitan aitona bat sentitu naiz. Komunetara jeitsi naitenean ateetan pilatzen ziren neskato-mutikoen ilarak ikusi ditudanean etxeko sofara kasakoak jarrita Rupert Ordorikak abesten dituen poemetako bat aditzeko desioa nabaritu dut, ziur aski Atxaga eta Sarrionaindiaren hitzek hainbestetan galtzen dutan intimitadea berreskuratzen laguntzen didatelako.

Zahartzen ari naiz, bai —psikoanalistarena apuntatu al dut dietarioan?— eta horregatik nahiago ditut garai batean rock and rollaren historian beren adreilua jarri zuten talde anglosaxoi zahartu batzuen kontzertuak, ondoan berrehun lagun besterik ez dudalarik.

Komunetik atera baino lehen La Habana ondoan dagoen Guanabacoa herriko irudiak etorri zaizkit gogora —zaharra ezezik nostalgiko bat bihurtzen ari naiz, ezin diat hola segitu—. Negu Gorriak lau ikurriña mugituz azeno estraino batez «beste bat Fermin» oihukatzen duten kubano talde baten aurrean jotzen ari dira.

Anaitaren pistara jeitsi naiz eta aurrerago jarri naiz. Bapatean nire andregaiari Negu Gorriak ez zaizkiola gustatzen oroitu naiz. Horrek ez nau gehiegi harritzen, baina lehen goan Rupert ez duela gogoko esan zidan eta sutan jarri nintzen. Etxera iristean Benito Lertxundi edo Txomin Artola-ren diskaren bat jartzen badu dibortziatu egingo naiz, komaidios!

Elkarrizketa garaia ote?

Nafarroako azken urteotako lan publikoetako proiektu nagusiek oposizio sendoa jaso dute horretarako sortutako koordinakundeetatik, eta PSN-PSOEko legegintzaldian, ekologia, politika eta zonakako interesak frankotan nahastu egin ziren. Koordinakunde batzuk hobekuntzak proiektuetan, beste batzuk oposizio garbia, denek elkarrizketa eskatzen zuten. Gabriel Urralbururen Gobernutik baina, ez zuten

gehiegi jaso. Iaz izan zen Gobernu aldaketa-rekin elkarrizketarako bidea gertuago ikusi zuten koordinakundeek, batez ere Alli lehen-dakariak egindako adierazpenengatik. Batzutan Gobernuak bultzatuta —Aranguren, Sakanako autobidea— bestetan ezkutuan —Lurralde, Aritzarte-Sorogain—, argi dago zerbait mugitzen ari dela, gehienetan aldaketa adierazgarriak gertatu bait dira azken hilabeteotan.


Barnean

PILOTA



Xabier Landa
argazkilariaren
liburu ederra / VII

EZKURRA



Osasunako presidentea
hogeitabost urte beteko
ditu postuan / VIII

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Guillermo Perez Villata Cadizeko pintorearen erakusketa ikusgai dago Iruñean, Gotorlekuko Arma aretoan, ekainaren 28a arte. Nafarroa ekarri dituen lanak azkeneko hamabost urtetan egindakoak dira, gai desberdinekin.

'Cuba, a pesar de los pesares' erakusketa ikusgai dago Jarauta kalean, Batzorde Internazionalisten aretoan. Asteazken zehar Cubari laguntza ekonomiko emateko kanpaina egiten ari dira Iruñean. Gaur arratsaldean jaia izango da Gaztelu enparantzan, 'blokeoari ez' lemarekin.

Jose Javier Irisarri Itxaso, Iri-sarritxaso margolari iruñarraren erakusketa izanen da ikusgai Lankide Aurrezkiaren Iruñeko erakustaretoan. Gaurtik ekainaren 21a arte izanen da erakusketa, eta honekin amaitutzat emanen dute denboraldia aipaturako erakustaretoaren arduradunek.

HITZALDIAK



'Garai bateko Larraun' gaiari buruz mintzatuko dira gaur, zenbait larraundar aspaldiko kontu zaharrak eta bizimodua azalduz. Ekitaldiaren aurkezlea Martin Juanena izango da eta Lekunberriko 'Mitxasenean' Kultur Etxean egingo dute, 20.30etan. Larraungo Udaberri Kulturala kanpainaren barruan antolatu

Baztan-Bidasoa Nafarroako zonalderik ezagunena eta ikusgarriena dela ezin uka. Herriak, paisaiak eta ohiturak betidanik izan dira aproposak bertara hurbiltzeko. Hala ere, bertako txoko, baserri eta eliza franko zeharo barreiatuak izanda, ez dira oso ezagunak kanpokoarendako ibilbide aunitz.

Etxalartik aterata, Sarako bidea edo Zugarramurdikoa hartu daitezke. Lehendabizikoari jarraituz, usategitik igarotzen da, eta udazken aldera beti ikusgarria den usoen pasabidea antzeman eta gozatzekoak dira, ekitaldi osoak duen zapo zaharrek.

Baina askoz ezezaguna den bidea Zugarramurdia eramaten duena da. Hamazazpi kilometrotako bideberri honetatik ez da sobera esatea ia ez dugula ez herri ez baserri ikusiko. Dena da ira, zuhaitzak eta pendizak, ganaduen gozameneko. Urbia, Ibaineta, Soroaundi, Irumugak,

Mugarik gabe



Apezborro, dermioen izenak, bainan etxalderik gabekoak. Ez behintzak agerian. Ibilbide zeharo aproposa txirindulaz

egiteko. Halaber, ibilbide honen erdian, Legate eta Plazaxelaitik barna, Oronotz-Mugairira ateratzen da bidea.

rion Eslaba Kontserbatorioaren Auditorioan. Ekitaldia Axular Kultur Elkarteak antolatutako aste kulturalaren barruan dago, igandean amaitzen dena. Bertso saioa arratsaldeko 19.30etan izango da.

MUSIKA



Refugiados arituko da gaur, Altsasuko gaztetxean, 22.30etatik aurrera.

Matraka eta Bourbon dira larubatean Antsoaingo Txoko Gorri, 22.30etatik aurrera. Rock gogorra aditzeko aukera.

Balerdi Balerdikoen musika entzungai Lekunberriko kultur etxean larunbateko 23etatik aurrera. Etengabe dantzan aritzeko aukera ezin hobea izanen dute Lekunberrira hurbiltzen direnak.

KIROLAK



'Jota, Jota' Goñiren lagun talde batek bere omenezko ibilaldi eta bazkaria antolatu du igandeko. Jose Joakin Goñi Azanza apirlean hil zen Ama Dablanetik jeisten zelarrik, eta bere omenezko ibilaldian Arrarasetik atera, eta Ireber mendia igotzea pentsatu dute bere lagunak. Autobusak Iruñeko Gurutze enparantatik aterako dira goizeko 9etan, eta izena eman nahi dutenek, dei dezatela Deportivo Navarra taldearen 22 43 24 telefonora.

dute mintzaldi hau, beste ekitaldi batzuren artean.

'Bizitzeko lurra' gaiarekin mahaingurua izango da gaur, hilak 5, arratsaldeko 20.00etan Nafarroako Museoaren aretoan. Eduardo Malagon Hegoa taldekoa, Iñaki Antiguedad EHUKo irakaslea eta Erreka taldearen kide batek parte hartuko dute Mugarik Gabe taldeak antolatu duen ekitaldian. Rioko bilkura dela

eta, aste honetarako mintzaldiak prestatu dituzte, gaur bukatzen direnak. Gaur 19.00etan ere, 'Oihan tropikala' bideo emanaldia eskeiniko dute leku berean.

ANTZERKIA



Kukubiltxo taldea arituko da datorren igandean, ekainak 7, Etxalarko kaleetan. 'Jalgi hadi

BERTSO SAIOAK



Amuriza, Arozena eta Murua bertsolariak bihar larunbata, hilak 6, arituko dira Iruñeko Hila-

ERRAN DUTE

6 *Riau-riau bertan behera uztearena mingarria eta oso gogorra da».*

Juventudes Navarras

UPNko gaztediak

«Rioko bilkuratik aterako denarekin ez dugu batere esperantzarik».

Juan Lopez de Uralde
Greenpeaceko burua

«Gure baitako kontzientziari jarraitu behar diogu beti».

Jose Maria Zirarda
Artzapezpikua

«Publizitatea zerua eskaintzen duen festa antzeko zerbait da».

Joaquin Lorente
Publizitatean aditua

ASTEKO PERTSONAIK

Joseba Lazkano



Intsumisosa

Eibarko intsumisosa asteartean Eatera zen kalera, Iruñeko gartzelako zuzendaritzak hirugarren gradua eman ondoren. Lazkano hamazortzi hilabeteko gartzela zigorra betetzen ari da bertan, soldaduskari uko egiteagatik. Atera bezain laister entzutegian epaiketa zuten intsumisoengana joan zen Lazkano, eta bertan gartzelako bere esperientzia azaldu zuen: «oso gogorra da, nahiz eta kaleko laguntza duzula somatzen den». Hogeitabost urteko intsumisoak barruan «presio gogorra» zegoela adierazi zuen, eta giroa nahiko militarizatu eta irrazionala zela gaineratu.

Jesus Unanua



Atezaina

Osasunako bigarren atezainak Iruñea uzteko bere gogoak azaldu ditu aste honetan, Robertok atea ongitxo betetzen duela eta, nonbait. Atezainaren arazoa larria izan daiteke gorritxoendako, atzean ez baita somatzen ordezkorik. Unanuak garbi utzi du aulkian gehiago ez duela egon nahi, eta mutikoak lehen mailan egoteko maila badu. Robertok ere alde egiteko gogoak adierazi zituen noiz edo noiz, baina azkenean geldituko dela dirudi. Hala ere, Ezkurak zein Zabazak biekin gelditzeko beren nahiak azaldu dituzte, bestelaz hirugarren bat fitxatu beharko bait litzateke.

Bittor Aierdi



Lurraldekoa

Lurraldearen bozeramailea Lbaino, Lurraldea oso izan da berriro ere protagonista aste honetan, astelehen bertan bere proposamen frankori bidea eman bait zion UPNk parlamentuan eztabai daitezen. Lurraldea pozik agertu zen erabakia ezagutu eta gero, eta zati eztabaidatsuenarekin — Atxitarte — ere aurrera aterako dela adierazi zuten, «bai Eusko Alkartasuna edo IU-EBk ekimena egiten, bai Alirren iritziei jarraituta». «Izan ere, gobernuarekin prest agertu da hobe-kuntza hori egiteko, hobe delako», esan zuten asteartean Lurraldekoek.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... Informazio Saioa Baztan, Malerreka eta Bortzirietako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... Gautxori irratiaio musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriizketak.

Baztan-Bidasoako ardi gasna lehiaketa

MATTIN KAPITANSORO / RÚNEA

Bortzirak, Malerreka eta Baztango gasnak lehiaketan ari-tuko dira lehendabiziko aldiz heldu den igandean, ekainak 7, Etxalarko Altxata Elkar-teak antolatu duen udaberriko kultur egunen egitarauaren barruan. Lehiaketa honetan, antolatzaile-teen ustetan, hogeitabost artzain inguruk hartuko du parte, baina gero ez dira enkantera aterako gasnak, beste txapelketan egiten den ez bezala.

Lehiaketa hau izanen da, esan bezala, zonaldeko gasnendako espreki egiten den lehendabiziko-a, nahiz eta bertan Nafarroako latxa arrazako artalde kopururik altuena bildu. Orain arte Berako Lurraren Egunean biltzen ziren artzainak beren gasnekin, urriaren amaieran, baina Bortzirikoei soilik mugatu da lehiaketa hau azken urteotan.

ALTXATA KULTUR ELKARTEA Nafarroan jatorriz-ko izendapena duten bi gasna mota dau-de: Erronkari eta Idiazabalgoo. Azken honen barruan sei azpi-zonalde daude: Urbia, Gorbeia, Aralar, Urbasa, Bidasoa-Baztan, eta Pirinioa (Aezkoa-Luzaide), eta azken lauak nafarrak dira. Hain zuzen ere, Bidasoa-Baztan da artalde kopuru handien duen zonaldea, baina bertako gasna ez da soberan atera baserri eta ben-tetik, eta, hori dela eta, beste zonaldeakoa —Aralar, Urbasa— baina franko ezezagunagoa da. Horren lekuko, zonalde ho-rretan soilik zortzi ekoizlek dute Erregistro Sanitarioa.

Lehiaketa hau egiteko ideia



Gasna erosteko aukera izanen da Etxalarren.

Etxalarko Altxata kultur elkarte berritik sortu zen, bertako gasna salmenta eta ezagupena bulka-tzeko. Beste gasnek dituzten an-tzeko berezitasunekin, ez da be-rez oso ezaguna zonaldekan po, Lourdes Indaburu elkarte-k kideak azaltzen duenez. «He-mengo gasnak badauzka berezi-tasunak, baina ez du inoiz izandu ez publizitaterik ez deus. Pena-garria da, baina hemen ez da gas-na lehiaketarik egin, eta gure helburua hori izanen zen, gasna hau pixka bat zabaltzea».

Arazoan ere zer esan handia izan dute orain arteko ohiturek

eta gasnaz bertakoek zuten ideiek. «Hemengo artzainei gas-na etxetik ateratzea hagitx kos-tatzen zaie —azaltzen du Indabu-ruk—. Badira batzuk kanpora ateratzen hasi direnak, baina ber-tenaz hemen saltzen zen, etxe-rako. Ez da izan preziatu den zerbait».

Lehiaketan parte hartuko du-ten gasnak, bestalde, ez dira en-kantera aterako, antolatzaileek ez bait dute ikusi horretarako giro edo interes berezirik. «Subasta egiteko behar da norbait pujatze-ko, eta aritu ginen hizketan he-mengo ostatueta, eta inor ez zen

animatu». Zonaldeko artzain gehienera bidali zaio gonbitea, eta zerrenda luzea egin dute. Nahiz eta askok parte hartu nahi ez, ho-geitabatek jada izena emana dute parte hartzeko.

UDABERRIKO KULTUR EGUNAK Horretarako ekainaren 7ko goizeko hamai-kak baino lehen aurkeztu behar-ko da gasna Etxalarko Pilota Pla-zara, et sariak 12.000 pezetakoa izanen da lehendabizikoarenda-ko, 8.000 pezetakoa bigarrenari, eta 5.000 pezetakoa hirugarre-narendako.

Gasna lehiaketaz gain, beste zenbait ekitaldi antolatu du sortu berria den elkarte honek, eta gaur bertan izango du hasiera, arra-tsaldeko 19.30etan, Eskola zaharretan alkoholari buruz Iñaki Arrizabalagak emango duen hi-tzaldiarekin. Igandea lehiaketa izango da, eta tartean, eguerdian Lesakako koralak abestuko du bertan. Sari banaketaren ondotik, Herri bazkaria izango da, Manolo Arozena lesakarra eta Bittor Eli-zagoien Arraiozko bertsolarien

Hemengo gasnak badauzka berezitasu-nak, baina ez du inoiz izandu ez publizitate-rik ez deus. Penaga-rria da, baina hemen ez da gasna lehiake-tarik egin, eta gure helburua hori izanen zen, gasna hau pixka bat zabaltzea.

Euskal Katekesi Eguna bihar ospatuko dute Iruñean

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Bihar larunbata, hilak 6, Na-farroako Katekesi Eguna ospa-tuko da Iruñeko Salestarren Ikas-tetxean. Euskal Pastoralaren idazkaritzak antolatuta, hau da ekitaldi honen hirugarren urtea, Nafarroa osoan katekesia eus-karaz ematen duten haur, kate-kista eta gurasoendako.

Horrelako eguna ospatzeko ideia Iruñerriko kateskitengañ-dik sortu zen duela hiru urte, «gutxi izanda, gure indarrak batu egin behar ditugulako», idazka-ria den Xabier Irigarainen esane-tan. Iaz seirehun bat izan ziren Iruñean eta aurtan ere antzeko kopurua espero dute.

Euskal Pastoralaren Idazka-ritza hau osatzeko erabakia duela hiru urteko sinodoan hartu zen, eta joan den urteko amaieran dekretu baten bidez osatu zen ofizialki. Horko burua Vicente Sanzberro Oronotz-Mugairiko erretorea dago, artzapezpikuaren ordezkari gisa, eta idazkaria Xa-

bier Irigarai apaiza bera da. Egi-taraua goizeko 10.45etan hasiko da, talde bakoitzaren ongi eto-rriarekin. Salestarren Ikastetxe-ko atarian egongo diren ardura-dunei euren arukezpena egin eta ekintzaren bat azalduko diete partaideek.

ZIRARDA ARTZAPEZPIKUA BERTAN Ondoren, 11etan, pa-rrokia eta talde bakoitzaren aurkezpena izango da, txartel, poster edo bertsoen bidez. Aurkezpen ho-netan Jose Maria Zirarda artza-pezpikua izango da.

Goizeko 12etan jolas musik-al-dia entzun ahal izango da Za-rauzko Jaione Escudero eta Fer-nando Ederraren eskutik, eta on-doren, eguerdiko 13.30etan, elizkizuna. Bazkaria 14etan izango da, eta bakoitzak bere ja-naria eraman beharko du.

Arratsaldeko 15.30etan, areto nagusian, antzerkia, abestiak, musika tresnen emanaldia, triki-tilariak eta bertsolariak izango



Egunari buruzko kartela eta Jose Maria Zirarda artzapezpikua.

dira. Nafarroako euskarazko ka-tekesiaren egoeraz mintzatzerakoan «eskasia» hitza aipatzen du Xabier Irigarai apaizak, «batez ere helduen artean, nahiz eta eus-

kara menperatu, ez bait dira au-sartzen klaseak ematera eta libu-ruak edo irakurtzera. Iruñerri al-dean arazoak are larriagoak dira, euskaldunok sakabanaturik gau-

delako. Parrokia bakoitzean hiru edo lau euskaldun daude, eta de-nak batzeko oso zaila izaten da, batez ere jaunartze edo sendo-tzean».



Lurraldea eta Gobernuaren arteko elkarriketak baieztatzen eta ukatzen diren bitartean, talde honek arukeztutako zenbait proposamen Parlamentuan erabakiko dira. Sakanako autobidean Segimendu Batzor-

dea osatzea onartu du Gobernuak, Aritzarteko urtegia baztertu egin du, Aranguren eta Mankomunitatearen arteko elkarriketei Alli lehendakariak berak eman zien onespina eta bultzada, nahiz eta aste honetan bertan

hautsi diren. Arazo eta egoera desberdinak denak, baina, era berean, lotuta denak koordinakundearen inguruan. Itoitz dago oraindik geldirik, baina partaide gehienak bat datoz: «Badago jarrera aldaketa».

Zerbait mugitzen ari da

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Gertakari guzti hauek, dudarik ez, koordinakundearen begien aurrean ez dira alferrik pasa, eta egungo egoera eta bakoitzaren analisia egiteko, akanpada bat hasiko dute gaur bertan, ostirala, Lakuntzan. Bihar, larunbata, mahaingurua egingo dute honi buruz.

Koordinakunde hauen sorburu eta garrantzi handiena lortu duena Lurraldea izan da eta hor hasi ziren Gobernuaren aldetik lehendabiziko 'keinuak'. Gobernuak askotan ukatuak, Lurraldeko ordezkariak behin eta berrir esan dute elkarriketak izan, izan direla, eta horren lekukoak paratzen dituzte Gobernuarendako 'aldaketa teknikoak' baino ez direnak.

Gipuzkoan akordioa lortu ondoren, Nafarroan ere «etorriko zela» adierazi zuten Lurraldekoek. Asteartean bertan ezagutu zen UPNko erabakia, autobidearen zenbait aldaketa, Atxitar-tekoa izan ezik, Parlamentura eramateko.

Irurtzun ondotik dauden bi malkorren pasabidean aldaketak egiteko aukera ere ez dago guztiz baztertuta, UPNk beste alderdien esku utzi bait zuen zatitxo horri buruzko mozioa aurkezteko ardua.

Bittor Aierdi Lurraldeako bozeramalearen ustetan, hemen lortutako akordioa ezezik, gatazka honen inguruan dauden aldaketak «oso adierazgarriak dira, Urralbururen garaia amaitu dela erakusten dutelako. Alli eta garai berriak heldu dira, eta ondorioak

hasi dira. Horrek adierazten du elkarriketaren bidea eraginkorra dela».

Arangurengo zentrua edo Itoizko urtegiaren proiektu ofizialetan atzera egitea arrunt zaila dela ezin uka, baina Aierdik baikor ikusten du egoera. «Edozein negoziakatan bi aldeek amore eman beharko dute, baina Itoizkoak denbora asko iraun dezake oraindik. Arangurenen, gauzak dauden moduan, irabaz daitezkeen irabaziko da, eta ezarriko diren hobekuntzak garaipenak izango dira gizartearendako».

Lurraldearen zenbait proposamenak onartzea, Aierdiren ustez, mesdegarria izango zaie beste mugimenduei. «Orain arte ez da inorekin hitzegin, eta orain denekin hitzegiten ari da. Eta hitzeginez gero, akordioa lortuko da».

SAKANAKO KEINUAK ORAINDIK

Sakanako autobidearen lehendabiziko zatia lanak behin hasita, bertan osatutako Herrietako Batzordea udalez hasi zen autobidea honi zenbait aldaketa egiteko proposamenak aurkeztu. Horien artean zegoen Segimendu Batzordea osatzeara, Sakanako Plangintza Orokorra egin ahal izateko.

Proposamena zenbait udal-txetan onartu da dagoeneko, eta duela hilabete bertako bost alkatek segimendu batzorde hau osatzeko eskaera egin zioten Lopez Borderias Herrilan kontseilariari. Duela bi aste baieztatu erantzuna jaso zuten alkateek, eta parte hartzeko deia egin zieten beste alkateei. Batzorde honen osaketa



Atxitar-teko pasabidea da arazorik eztabaidatuenetakoa.

JOXE LACALLE

eta funtzioak dira zehaztekoak, baina Herrietako Batzordearen bozeramalea den Patxi Satrustegiren ustetan, erabakia «positiboa» da.

«Segimendu Batzorde osatzeara guk eskatutako zerbait zen—dio Satrustegi—, eta alde horretatik pozik gara, baina orain ikusi egin behar da zein funtzio betetzen dituen eta nola osatzen den. Alkateen proposamena da herri bakoitzetik bi ordezkari eramatea, edo udal talde bakoitzetik bana. Azkenean osatzen bada, guk hortik bideratuko ditugu gure proposamenak».

Satrustegik ere Gobernuaren aldetik jarrera aldaketa badagoela onartzen du, Sakanako autobidean izandakoa oraindik soilik 'keinu' bat izan bada ere. «Lurraldearekin elkarriketak izan dira, eta badira, eta gurekin ez da horrelakorik gertatu. Hala ere, eta Urralbururekin ikusi genuena ikusita, garbi dago aldaketa badagoela».

Aritzarte-Sorogaingo urtegia 'premia handiko proiektu' jo zuen aurreko Gobernuak 'Nafarroako Plangintza Orokorra' Oinarriak ize-

neko txostenean. Bertan agertzen zenez, urtegi hau baliagarria izango zen Arga-Urrobi-Erroi ibaiaren hasiera erregulatzeke, Arga ibaiaren uraren kalitatea hobetzeko eta Iruñetik beherako ureztapenak hornitzeko, eta Eugiko urtegiaren baina 1,5 aldiz handiagoa izango zen.

Aurreproiektua egin zen, eta bertan ere urtegiaren kontrako oposizioa sortu zen, koordinakunde baten inguruan bilduta. Kontzeju eta udal guztiek ere aurkako jarrera erakutsi zuten.

Aierdi: «Gertakari hauek oso adierazgarriak dira, Urralbururen garaia amaitu eta Alli eta garai berria heldu dela erakusten dutelako. Horiekin batera ondorioak heldu dira, eta honek adierazten du elkarriketaren bidea efikaza dela».

Lopez Borderiasek, baina, duela gutxi azaldu zuen arazo tekniko franko zeudela urtegia egiteko, eta oraingoz ez zela egingo adierazi zuen. Bertako koordinakundearen ustetan, baina, arazo teknikoarena «aitzakia baino ez da», eta proiektua bideragarria dela azpimarratu dute. «Aurreproiektua eginda dago—aditzera eman du Julia Ibarra koordinakunde partaidetakoak— eta teknikoak erraz zizuten ez zegoela inolako arazorik

hori egiteko». Koordinakundearen ohar batean azaltzen denez, Gobernuaren erabaki hau «urtegiaren kontra zegoen oposizioaren garaipena izan da, eta berari esker bertan behera gelditu da posible baino zentzugabekoa zena».


ITOITZEN ZAILAGO DAGO

Itoizko urtegiaren proiektua da, denentz artean, denentz ahotan urte gehien daramana. Aspaldiko proiektua Nafarroako gobernu askorendako, Urralbururen legegintzaldian eman zitzaion azken bultzada, Herrilan Kontseilariaren benetako 'Proiektu Nagusia' izan arte. Lanak adjudikatu gabe daude, eta aurtan ez da horretarako dirurik iragarri Nafarroako aurrekontuetan.

Hemen ez da inoiz elkarriketarik izan gobernuarekin, eta ez da inolako 'keinurik' jaso ere. Gainera, alderdi politiko gehienek, HBk salbu, Itoizko beharra azpimarratu dutela.

Maria Jose Beaumont Itoizko koordinakunde bozeramaleak, beste ordezkariak ez bezala, ez du aurrerapausu nabarmenik ikusten egoera berri honetan.

Bere ustetan, proiektu hauen inguruan izan diren gertakari guzti hauek desberdinak dira, «eta ez zait iruditzen ezkilak pozez jotzekoak direnik. Hala ere, Urralburu eta PSOEekin zegoen egoerarekin alderatuz gero, desberdintasuna nabaria da. Allik badu elkarriketarako jarrera irekia, baina beste alderdietan, bereziki, PSOEengan, eta UPNko beste aldeengan badago horretarako aurkako jarrera».



Txintxurrenako arroila, Itoizko urtegiaren azpian geldituko dena.



Rio de Janeiro ekologiaren hiriburu da astelehen honetatik hurrengo ostirala arte. Bertan bildu dira mundu zabaleko ordezkari gorenak, zeharo gaixo dagoen lurrarekin zer egin behar den erabakitzeko asmoz. Ekologia da hitza, baina zentzu zabalean: Ipar-Hegoen arteko

harremanak; teknologiaren erabilera; baliabideen ustiapena. Finean, zer sendabelar eman behar diogun lurrari, edo bertan utzi behar dugun. Denori dagokigun arazoa, beraz, eta denon erantzuna behar duena. Hori dela eta, Nafarroan ere honen inguruko ekitaldiak prestatu dira.

Nafarroa, Riotik gertuago

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Aste honetan bertan bi erakundek hartu dute aitzakiazat —edo ezinbesteko erreferentziatzat— Rioko bilkura, eta horren inguruan han erabakitzen ari den garrantziaz jabetarazi nahi izan dute gizartea.

Mugarik Gabe eta SODEPAZ taldeek —Garapen Langintzarako Erakunde Ez Gubernalak—, horrela, 'Rioko Bilkuraren Iparra eta Hegoa' izeneko ihardunaldiak antolatu dituzte aste honetan, eta gaur bertan, 'Bizitzeko lurra' izeneko mintzaldian parte hartuko dute Erreka osatu berri den plataforma ekologikoaren ordezkari batek, Iñaki Antigüedad EHuko irakasleak eta Eduardo Malagon Hegoako partaideak.

Ihardunaldiekin batera txosten bat prestatu dute bi erakundek, Rioko bilkurari begira eman diren pausuk deskribatzeko, eta hainbat erakunde eta taldek aurkeztuko dituzten proposamenekin. Gogoratu behar 'Lurraren Gailurra' honekin batera, Erakunde Ez Gubernalak izango dela bertan, beren proposamena, azterketa eta emaitzekin.

Txosten honetan erakunde ofizialen jarrera eta proposamenak —hau da, Rion aztertu eta eztabaidatuko dena—, Erakunde Ez Gubernalaren proposamena; Greenpace talde ekologistaren txostena; Hegoaren garapenaren barruan emakumeen arazoa aztertzen duen Haydee Birginen lana; eta Bob Sutcliffe-ren artikulu bat biltzen dira.

prestatu du Euskal Herria osoan, ekitaldi, proposamen eta egitarau zabal eta anitzarekin.

Erreka Plataforma talde ekologista eta independenteetatik sortu zen, Rioko bilkura zela eta nolabaiteko jarrera bateratua erakusteko. Nafarroan ADMAR-Eguzki, Asambllea Ecológica de Tierra Estella, Lur Adiskideen Nafar Elkarte (ANAT-

Mundu osoari dagokion arazo larri honi aurre egiteko, behetik hasi behar da lehendabiziz, hemen gure inguruaren alde lan eginez. Izan ere gure inguruan dauden arazoak mundu osokoan zati garrantzitsua da.

LANE), Eguzki, Eki, Gorosti, Tuterako Landazuria eta Sanchicorrotako Eki taldeek osatzen dute plataforma. Hamabostaldiaren ondoren, Ekojaia prestatu dute Durangon, eta Ekotopaketak ere egiteko asmoa dute, ekologiaren arazoak eta gaurko egoera aztertzeko. «Berez, plataforma hau ez dago osatuta irauteko —azaldu du Ana Blanco partaidetako batek— baina ondoren bere beharra nabarmentzen bada, aztertuko litzateke».

TALDE GUZTIEN PARTAIDETZAREKIN

Hamabostaldi honetan ahalik eta talde gehienekin partai-

detza nahi dute antolatzaileek, ingurugiroaren aldeko ekintzak egiteko. Ekitaldi guztiak zeharo banatuta izango dira, hau da, ez dira zentritik kontrolatuko.

Idea honek ondorengo esaldian du sorburu: «Mundu osoari dagokion arazo honi aurre egiteko, behetik hasi behar da lehendabiziz, hemengo gure ingurugiroaren alde lan eginez. Gure inguruan dauden arazoak mundu osokoan zati garrantzitsua bait dira».

Hori dela eta, ingurugiroa zaintzeko ekintza guztiak izango dute lekua ekimen honetan, eta Errekak zenbait proposamen zehazten ditu herri guztietan egitekoak. Ekintza praktikoetatik hasi —zuhaitzei buruzko mintegiak egin, lanean landareak landatu, eta abar— proiektu konplexuenera —hiri barneko garraioari buruzko azterketa, ingurugiroa gaia duen erakusketak, lehiaketak, kanpainak eta abar—.

Ana Blancok azaldu duenez, asmoa ez da soilik talde ekologisten partaidetza lortzea, «baitzikeria eta jende guztirengana helburua. Adibidez, merkatuetako jendearekin hitzegino da, hamabostaldi honetan burtsa saldu ez ditzaten, paper birziklatuen erabilera bultzatzeko, eskoletan mintzaldi eta erakusketak egin ditzaten, eta abar. Hau da, toki eta arlo guztietan jendearen partaidetza lortzeko».

Kanpaina guzti honen koordinazioa Iruñetik egingo da, eta kanpainaren barruan ere heldu den igandean txirrindularitza martxa izango da Iruñean. Larunbatean Euskal Herrian dauden proiektu ekologistek buruz erakusketak prestatuko dituzte Gazteluko plazan.

mintzoak

HALAZKIÑE: Caviar tropikala edo banana-txokolatea

● Atari zabalera izugarri apal agertu eta harrapatu zuen lehen taberna jatorrean laguntza gisako baso bat izotzarekiko kubatar ron edan zuen. Gaur apart behar zitzaion lanean hasi zen hiri hartan. Libre arteko libre zenez, sentsual eta seguru ibiltzen zen: neska zen eta sexu erasoaren beldurrez egoteak ez zuen zergatirik batere.

—Beno, zer, aterako bai ala ez? —aditu zuen.

—Banaiaen, banaiaen! —ihardetsi.

Komunetik atera zen. Sar-tzerakoan mutil soz gelditu zitzaizkionak beren hartan gelditu zitzaizkion berririo Hilazkiñe aski erakargarri bait zebilen: badana eta unanpraka estuak; sandaliak aski finak zirelarik, abantzu oinhuksik zihoan.

Animazioa itzela zen non nahi; arimek elkar gainzka josten zuten; kantuak alde guztietan adi zitezkeen, petardoren bat edo bertze orobat... Jendetza alaiaren handia! Hilazkiñe goiz oroitzen zen musuka ari zen hirukote batez oharu zelarik: izanez ere, arturratu zuenean, jaiki, komunera joan eta inguruetan ezagutzen dugun Maitasun delako hori azkenekoz kazolatik beheiti egotzi zuen. Zeinen lasai gelditu zen ganbarara bihurtu, leihola ideki, ohatzean etzan eta egunsentiaaren usaia loari hartzen uzten zion artean usaintzen zuen. «Libro haiz, laztana!» ari izan zen berekiko; bere baitan hain eskas zuen oihanera biltzen ahalegindu zen eta bertan sartu... azkenekoz. Atertu zuen.


Hamaika pentsamendu eta hogeitabortz gogoeta egin ez, eta Lydia herengusuarengana jo zuen harenerako irrisa —bertze aldi baterako ezin utzi— libet-mendurako bezain sutu bait zuen. Lydiarenera jende hautatu zenbait biltzen zen likistaldi urde deliberatuari ekiteko asmotan. Gehienez jota, hamaiei pertsona elkartzen zen, zeinetarik bata Lydia bera zen eta bertzea Hilazkiñe. Zelako likistaldi horren baitako tenore aipagarriena den elkarren gainerako txiza ezezki, den elkarren gainerako kaka egitea ere bazen; hala badere, Lydiak arizaleen sosak hartzen zituen berean halakoak eta bertze egiten uzteagatik; Hilazkiñe, ordea, ez zuen ja ere ordaintzen anfitrioiaren lagun min jostalaria zen-eta.

—Lagun likits maiteok —hasi zitzaizkion Ly gonbidatuei beraien oihuak ozen izan ondoan oihuska bilakatu ziren bezain fite—, adi ezazue, mesede: gaur, gisa honetako elkartzearen laugarren urteburua betetzen ari garelarik, ustekabeko bat prestatu dut. —Jendea poz-harridurazko marmarka hasi zen. Lydiak segitu zuen: —Prestatu dut, baina (gizonkiek barkatzea espero diat) emaztekiendako baizik ez dut prestatu;

hain zuzen ere, Martxoan gaude eta hil honetan bertze ospakizun garrantzitsu bat izan dugu: orain berrehun urte Chicago-ko zorigaitzeko lantegi hartan ehun emazteki nagusiak erreak izan ziren. Gaurregun, bai emazteko baita zuek gizonok ere elkarren pare gaude askatasun orokorrean eta guri mement honetan dagokigun arloan bereziki, alegia, lizun-gogoa agertzeko askatasunean, non posesibokeria azkenik akatu dugun. Beraz, emazteki laztanok, hona hemen zuendako prestatu us-tekabea, zein-nean gizonok orobat parte har dezaket, noski. Has dadila, ba, ikuskizun soila izanen ez zaigun ikukizuna.

Lydiaren gibeletik larmintz guri eta zangarte joriko bat, bi, hirur, sei, zazpi, hamar, hamaika, hamalaur, hamasei, hamazazpi, hemeretzi, hogeitak mutiko alegere jostakin oro zakil zut atera zen eta zein baino zein zaluago, batzu zein baino zein beltzaranago, bertzetzu zein baino zein ilehoriago —tartean kaskagorrien bat eta beltz pare bat ere bazen— emaztekiengana zirkin trebeka hurbildu. Hilazkiñe bi beltzarani banana eman, laguntzeko erran eta goiko solairura eraman zituen. «Banana txokolatez atsegin duzue?» galdegin zien, haiek baietz eta neskak honela segitu: «Alta, kokoriko nahi zaituztet eta pipi-can honetan kaka egitea nahi!». Mutilek kaka mokordo lodiak egin zituzten neskak arropa eskasa soinetik kentzen zuen bitartean. «Ederki! —liluratu—. Orai, banana hauek hemen sartuko ditugu eta gero zapaldu ene gorputz osoa barna! Igurtz nazazue kaka-bananaz non nahi!». Hauxe caviar tropikala! Hilazkiñe lurrean jarri, zangoak zabaldu, besoak lurrean ongi tinkatu eta kakagile pareari nahikara egiten utzi zion. Neskakaren gozazorabioko intzifien berogarria. Oro debotki, elkarrekiko antsiatu ari ziren —erran gabe doa kaka-bananatan ezezki, izerditan ere blai zeudela—; halabadere, haragizko gozamenari ongi landua zuten: zenbat eta likitsago portatu, hainbat eta grinatsuago paratzen ziren hirurak; halatan, ba, geroago eta grinatsuago ari zirenez, ase beharrik ziren —aseak gosea ezin ikus— eta berhorretan zeuden, xheki bezain etengabeki.

Kurrialdi oparo agitu zitzaion hartaz hilabete aunitzetan oroitzen, izan ere, ikaragarri delizius izan bait zitzaion, noraino eta Sodoma-ko bizilagun lizun-koiena kiskalia gelditzeraino, preseski.



Gazteendako Zokoa

Urretxindorra

Luscinia megarhynchos
Zaila ikustekoa
Nafarroako iparraldean urria.
Arre kolorekoa.



Kantari aparta

Bere kanta ederra gogokoa izan zaio betidanik gizakumeari, eta horrek fama berezia eman dio urretxindorrari. Kanta hau nabari oso izaten da bedatseko gauetan, batez ere emea erruten ari denean, eta sinfonien lema edo literatura eta poesiaren gaia ere izan ohi da frankotan.

Zortzirehun metrotik behera bizi da, ordoki eta muinoetan, adar txikiko zuhaitzetan, eta parke eta jardinetan ere ikus daiteke.


Hegalaldia arina eta azkarra du, baina inoiz ez du zeharkatzen ongi babesturik ez dagoen zonalderik. Zizare, hegan zein lurrean, eta beste insektuez elikatzen da, eta udazkenean basafuituekin osatzen du elikadura.

Normalean beste txoriekin bizi da giro onean, baina ugaltzeko garaian emeen kontura liskarrak ugariak dira haien artean.

Txofrakia zolutik gertu egiten du, eta emeak lau eta sei arraultz bitarte partzen ditu. Erruteko, baina, arra zein emea tartekatzen dira.

Urretxindorra ez da kaiolan erreza eta lasai egoten den horietakoa, baina, ongi zainduz geroz ohituratu daiteke.

Nafarroan, funtsean, hegoaldean dago, eta ez da oso ugari iparraldean eta pirinioaldean.



Moko aldean lohidura beltza zeukan usoa

AITOR BURQUETE

Urtero bezala, udazken aldean bidai hura errepikatu behar zuten. Dударik gabe usoen gisako aunitz ez ziren inoiz gehiago abiatze puntura itzuliko. Askorentzat itzultzerik gabeko bidaia izango zen.

Ez zen salbuespena gure lagunaren egoera. Txuri-txuria zen eta moko aldera lohidura beltz ilun bat zeukan. Zetaka honek besteengandik desberdintzen zuen. Nahiko gaztea eta oso jostalaria, urretxindorraen kantua gogokoa zuen eta etengabe hura imitatzen ziharduen.

Inoiz ez zitzaion egokitu bidai hura egitea, baina entzun zuenez ez zen atsegina izango.

Bizitzak oraindik ez zizkion makilada asko eman, nahiko ondo tratatu zuen ordurarte. Sinplezi gradu altua zeukan bere buru txiki-txikian. Ez zekien zer zertorkion gainera.

Udazkeneko lehen hotzek

abiatzeko eguna gertu zegoela adierazten zuten. Zoritxarrez, eta beti bezala, egun hori heldu zen.

Milaka kilometro zeharkatu behar zituzten eguraldi beroko lurretara iritsi arte.

Udazkeneko lehen hotzek abiatzeko eguna gertu zegoela adierazten zuten. Zoritxarrez, eta beti bezala, egun hori heldu zen. Milaka kilometro zeharkatu behar zituzten eguraldi beroko lurretara iritsi arte.

Bidean milaka ehiztari, milaka eskopetakin. Tiro bota eta milaka uso eroriko ziren. Milaka txakurrek hartuko zituzten. Milaka sukaldarien eskutik pasa eta gero

prozesu luze hau milaka ahoetan bukatuko zen.

Eta horrela, urtero errepikatzen zen ekintza berbera.

Hegan egiten hasi bezain laster berunezko bolatxo batzuk hegaztien bizitzari amaiera eman behar zieten.

Gure laguna ikaratu baino ikaratuagoa zihoan. Bere ondoan zeuden lagunak hiltzen ikusi zituen. Bere gorputza jadanik ez zen soilik txuri eta beltza, tanta gorri batzuk ere azaltzen bait ziren. Bere lagunen odola zen. Baita berarena ere. Berunezko bolatxo horietako bat hegalean tartekatuta zeraman.

Bidaiaren bukaera ailegatu zen. Hasieran talde handia zena, frogar gogorak iragan ondoren, hiruzpalau usoetan gelditu zen. Horietako bat moko aldeko lohidura beltza zuena zen. Orain, bazekien zer zen bidai hura eta oraingoan suertea izan zuen, baina agian hurrengo bidaia azkena izango zen berarentzat.



BASAJAUN

Eguneroko etor-ibilieta kon-turatzen gara zenbat erabiltzen dugun papera, zenbat gauza paperez egindakoak diren?

Urtero hogeitaz milioi zehazten zelulosa kontsumitzen dira kartoiak eta papera egiteko. Bazene-kien 1984ko 2,8 milioi tona paper eta zelulosa zaharraz egindako paper berria saldu zela? Penagarrina da jakitea 7.500 milioi pezetako paper eta kartoi zaharra inportatzen dugula.

Gure paperaren % 85 birziklatu genezake, baina bakarrik % 50 erabiltzen da berriro. Etxeko hondakinen % 20 papera eta kartoiak osaturik dago. Papera birziklatzeko arrazoi asko daude, eta zuk zure etxean egin dezakezu: paperak gorde eta trapu saltzaileei eman, adibidez. Horrela, zuhaitz piloa zutik mantenduko duzu, eta energi eta ur asko ere aurreztuko dira.

Herri batzuekin alderatuz gero, hemen askoz atzeratuagoak gaude, eta kanpoan paper birziklatuaren eskaera gora doa nabarmen. Gainera papera hau beste baina merkeagoa da.

Erabili ondo papera. Etxazu marrazki bat egin eta gero bota. Eta papera birziklatua erostera-koan, kontuz, bi mota bait daude. Paper birziklatua, hau da, paper zaharraz osatutako paper berria; eta birziklatu ekologikoa, hau da, papera zuritzeko agente kimi-koak erabili ez direnean. Metodo berri eta garbi baten bidez egin da hau, beraz.

KAZKARROAN

Jenero xumekoak

□ Zurich-en egindako munduko dantza herrikoi eguna Gineako dantza taldeen denboraren nozioa hasieratik akaberaraino mesedez hitz gutxitan, Zurich-en. Munduko dantza egunean hamabosna minutu ematen zituzten talde guziek eszenatokia, baina Gineako dantza taldeak ordu erdi bat eta hortxe segitzen zuen, zuzendariari abisua eman zioten eta hortxe ziraute, musika kendu egion zioten eta oinez eta eskuez egiten zuten erritmoa, argiak itzali eta hortxe ziharduten. Elefante Zuriaren heriotza antzesten bait zuten eta Elefante Zuriaren denboraren nozioa hiltzerakoan hasieratik akaberaraino mesedez hitz gutxitan, Zurich-en.

JUANTXO URDIROZ

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER-ESKUI: 1.- Joan den urtean. Nago. 2.- Bizkaiko herria. 3.- Garai, sasoi. Zein unetan. 4.- Arnas ezak hil. Gaisotasun mota. 5.- Azkenekoa. Miatu aditzaren infinitibo. Bokala. 6.- Ireki. Eguneroko jaki. 7.- Gogora. Landare arantzaduna. 8.- Dirudunak. 9.- Orte. Mahai joko.

GOITIK-BEHERA: 1.- Ur korronte handi. Joan zaitez. 2.- Besape. 3.- Edari alkoholdun. Afrikan finkatu ziren holandarren ondorengoei esan ohi zaie. 4.- Gipuzkeraz, zain. Ipar Afrikako arabiar. 5.- Potasioaren sinbolo kimikoa. Mila eta berrogeitabederatzi. Lehenengoa. 6.- Gizon ttikia. Interjekzioa. 7.- Soro. Otso, hitz elkarketan. 8.- Oltasontzietako leihoak. 9.- Txori mota. Alderantziz, gai.

N-29

Zaharrak berri

Egur ona arian ezagutzen da. Eta gizon ona bere izaeran

Larraun

Txapelik handienak ez du buru hutsik betetzen.

Zentzugabea beti buru huts

Igantzi

Gizon bat hotelean.

—Ohe bakarreko logelarik libre badago?

—Bai, baina lanpeturik gabilza eta zeuk egi beharko duzu ohea

—Berdin da, etxean ere egiten dut eta.

—Hemen dauzkazu, ba, zorra, mailua, iltzeak...

Bizi Bizian

Xabier Landa argazkilari iruritarrak 'Pelotari. Bere ingurua' izeneko argazki liburua aurkeztu berri du, kirol honekin lotutako historia, ohiturak, kultura eta

paisaia biltzen dituena. Mota honetako lehendabizikoa, liburuaren bidez omenaldia egin nahi izan die egileak galtzear dauden pilota modalitate frankori, eta baita egunkari

eta famatik urrun aritu izan diren jende eta pertsonai askori ere. Ederki apaindurik, argazki bakoitzak mundu eta esanahi berezi bat dauka atzetik.

Pilotaren ingurua, argazkitan

MATTIN KAPITANSORO / IRUNEA

Argazki bati buruz aritzea ez da gauza erreza, are gutxiago logikoa. Argazkiak, berez, bere mintzaira bait du. Irudien mintzaira. Argazki ona bada, are zailagoa da ihardutea, berezko mintzaira hori garbiago eta ozenagoa da eta. Argazki ederren eskualdia izanez gero, liburu batean bildurik, zer gomendio hoberik liburu eskuratzea baino, alferrikako azalpenak ematen saiatu beharrean?

Xabier Landaren liburua pilotaren historiari leiho irekia da. Ez da anekdotario huts bat, baizik eta pilotaren inguruan dagoen mundu oso baten islada, egun galtzear dagoenaren munduaren islada. Liburu hau da, egileak azaltzen duenez, «pilota eta bere inguru kulturala aurkezten duen lehendabizikoa».

Xabier Landa iruritarraren lehendabiziko argitalpena da honakoa. Ez da, alta, azken izango, horretarako argitalpena sortu bait du Iruñean. Pilotarekiko lotura sakona duen Baztango bere herriko giroak kutsaturik, pilotarekin beti harreman sakona izan zuen argazkilariak. Argazkiarekin bere lehendabiziko esperientzia, baina, Kinton izan zuen, ibilaldi batean dozenaka sail hilda topatu

zituenean. Hor hasi zuen beste ibilaldia, luzeagoa, argazkilari-tzaren munduaren zehar, eta 'Deia' eta 'El Pais' egunkarietan egin zuen lan, Nicaraguan, El Salvador eta EEBBetan. Ondoren itzuli zen bere herrira, eta han topo egin zuen hiltzear zegoen pilota zahararen errealitatearekin. bereziki Baztanen oso eza-



Xabier Landa.

JOXE

gunak ziren modalitate zenbaitena: laxoa, pasaka, mailaka...

Horrek astindu zuen argazkilaria, «joko hau galtzen bada, guk ere galduko bait dugu antzineko arbasoek utzi ziguten altxor berezi bat; baita gure nortasuna eta herriak duen aberastasun bat galdu ere».

Ederki apaindurik, mila ale ateratu ditu liburuaren egileak, de-



Sarako elizaren aterpean, euria hasi ondotik.

XABIER LANDA

nak eskuz egindakoak. Hain zainduak, ezen nylonzko haria erabili bait zen josterakoan, «Baztango giroa oso hezea bait da. Liburu honek urteak iraun behar du, gazte eta umeek pilotaren historiaren berri izan dezaten».

Edukia, funtsean, argazkiak dira, zuribeltz berezi batean, egilearen teknika baten laguntzaz lortutakoa.

Liburuaren barruan ingurua, artisauak, jokalariek, ohiturak eta sinismenak nahasten dira, egileak azaldu duenez. «Make-


tazioa pilotaren erritmoari jarraiki egin da. Argazki handien ondotik txikiak datoz. Mintzaira berezi dutenei, ixilek jarraitzen diete».

Argazkien ondoan, testu labur eta errezak, poetiko samarrak: «Herri baten testimonioa».



Pilotaren inguruan betidanik artisau franko mugitu izan da, txisterak, goanteak, espartinak edota pilotarendako larru edo haria lantzen. Azken goante egileek hantakoei ekin behar izan diete lana falta dela eta.

XABIER LANDA



Errebotea da, laxoarekin batera, antzina-ko modalitateen artean gaur egun oraindik bizi-rik dirauena, bereziki Nafarroa Beherea eta Lapurdi. Pilotalekuei bigarren pareta erantsi zieten, eskuzkoa jokatzeko, leku gehienetan galdu ziren modalitate eder hauek.

XABIER LANDA

Fermin Ezkurra

..... Osasunako presidentea

«Presidente izatea gustatzen zait»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

EGUNKARIA.— Joan den asteartean, hilak 2, modu ofizialean berriz ere Osasunako presidente izendatu zintuzten datozen lau urtetarako. Ez al da kezkagarria presidentea izateko zure ordezkorik ez egotea?

FERMIN EZKURRA.— Nik kargua utziko banu presidentea izateko prest leudekeen pertsonak badaudela uste dut. Osasunaren egungo egoera ona da, eta horrek asko errezten ditu gauzak. Taldearen alde zerbait egiteko prest dauden kide eta zaletuak badaude, eta nire ustez, egun zuzendaritzan dihardutenen artean ere interesaturik dagoen norbait izanen da. Niri kargua gustatzen zait, eta besteek ere gustokoa izanen dute.

EGUNKARIA.— Osasunaren gidaritzan eman dituzun 21 urte hauetan, zeintzuk izan dira unerik gozoenak?

EZKURRA.— Politena lehen mailara igotzea izan zen, dudarik gabe. UEFAn aritu garenean ere oso momentu interesgarriak bizi izan ditugu. Harro sentiarazi nauten, ez bait da normala gure ezagutza gure talde bat UEFAn aritzea. Gero badaude beste gauza batzuk, hala nola El Sadarreko berrikuntza, edo eta mutikoak futboleant aritu daitezen zelaien eraikuntza.

EGUNKARIA.— Eta unerik garrantzenak?

EZKURRA.— Unerik txarrenak taldea gaizki aritu izan denean bizi izan ditut. Gehienbat lehen mailari eusteko arazoak izan ditugunean. Hori ez dut esaten aurtengo denboraldiagatik, aurtun ez bait dut uste maila galtzeko arriskuan egon garenik.

EGUNKARIA.— Azken 21 urte hauetan gauza aunitz aldatu dira futboleant. Osasunaren aldaketarik garrantzitsuenetarik bat, harrobia apur bat baztertuz, atzeritar fitxatzeari ekitea izan da. Emaitzak desberdinak izan dira oso. Guztiok dauzkagu buruan Milinkovic, Pedersen edo eta Grimes fitxaketa tamalgarriak. Bestalde ezin dira ahaztu Urban, Robinson eta Sammy Leeren fitxaketa arrakastatsuak. Aldaketak pena merezi izan duela uste duzu?

EZKURRA.— Interesgarria eta beharrezkoa izan dela uste dut. Atzeritarrengatik izango ez balitz, egun bigarren mailan egonen ginateke. Honekin ez dut esan nahi harrobitik mutilik ateratzen ez denik, baizik eta postu batzuetarako jokalaririk ateratzen ez dela. Aurrelariak, esate baterako, ez da iruten Taxoaretik. Hori dela eta, kanpotik ekarri behar ditugu.


Fitxaketekin ez da beti asmatzen eta hori talde guztiei gertatzen zaie. Kontutan hartu behar da kanpotar bat ekartzen baduzu zure taldera bertako joko eta bizitzara moldatu behar dela. Fitxaketa batzuk ez dira uste bezain ondo ateratu, baina guztiek lagundu dute taldea aurrera eramaten.

EGUNKARIA.— Osasuna talde txikia den arren, talde handi bat baino gehiagok inbidia dio. Zerbait gorritik gabe, azken denboraldietan beti ibili da sailkapenaren lehen postuetan, aurtun zailtasunak pasa dituen arren. Zein da arrakastaren gakoa?

EZKURRA.— Talde batetan garrantzitsuenak buruzagitzan dihardutenak pertsona serio eta zuzenak izatea da. Duela 21 urte hasi ginenen arteko askok nirekin

Fermin Ezkurra joan den asteartean, hilak 2, beste lau urtetarako izendatu zuten Osasunako presidente. 21 urte daramatza Nafarroako futbol talderik handienaren buruzagitzan, eta izendapenaren berri honekin mende laurdena beteko

du kargu horretan. Sarritan bere lana kritikatu izan den arren, hauteskuntzetan ez du areririk izan presidente kargua eskuratzeko lehian. Liga amaitzeaz dagoenean, Ezkurra NAFARKARIArentzat ihardun du Osasunaren iragana, oraina eta geroaz.



Fermin Ezkurra.

JOXE LACALLE

segitzen dute zuzendaritzan. Hori ona da, eta baita garrantzitsua ere. Argi eta garbi dago zuzendaritza maiz aldatzen duten taldeak azkenean pikutara joaten direla. Iraunkortasuna beharrezkoa da eta entrenatzaileek ere horren beharra dute.

EGUNKARIA.— Zein da Osasunaren etorkizuna elkarte anonimoz beteta egongo den espainiar ligan?

EZKURRA.— Oraingoz ezin da esan zer gertatuko den. Futbolaren egiturak erabat aldatuko dira. Honen aurrean abantaila izugarria dugu, egin nahi duguna aukeratu ahal izatea, hain zuzen ere. Futboleant elkarte anonimoek emaitza onak ematen dituztela? Gu, arazorik gabe, elkarte anonimo bilakatuko gara. Bestela

ederki gaude gauden moduan.

EGUNKARIA.— Osasunak lehen mailan jadanik leku finko bat bereganatua zuela ematen zuen. Hala eta guztiz ere, aurtun arrisku handiko tokietara itzuli da.

EZKURRA.— Ez dut esan nahi normala denik, baina aurtun aurkako gauza aunitzek bat egin dute. Esate baterako, denboraldi honetan jokalaria batzuek UEFA, Liga, Kopa eta bere estatuko selekzioekin jokatu behar izan dute, eta hori gehiegi izan da. Ezin da ahaztu zazpi jokalaria kirolfanoetik pasa direla, eta hori guretzat jasangaitza da. Datorren urtean ez dut uste lesioekin horrenbeste arazorik izanen ditugula.

EGUNKARIA.— Jokalaria ia guztiek urte bateko kontratua dute. Hori dela eta, datorren denboral-

dian taldea osatuko duten gizonak ia berberak izanen direla ematen du. Ba al duzue fitxaketaren bat egiteko asmorik?

EZKURRA.— Oraindik ezin dezaket ezer esan, ez bait daukat argi zer egingen dugun, oraindik ez dut teknikoekin hitzegi. Dena den, Osasunako jokalaria UEFAn ederki aritu dira; eta Ligan behera egin duten arren, partidu oso onak ere egin dituzte. Nik talde oso ona daukagula uste dut. Oso zaila izanen da gizon hobek aurkitzea, eta oso garestia.

EGUNKARIA.— Beraz, lau atzeritarrek Osasunaren segitu dute.

EZKURRA.— Hasieran behintzat bai. Beraiek kontratua dute, eta guk hartzen ditugun konpromisuak bete behar ditugu. Honek, ordea, ez du esan nahi talde batek gure atzeritar bat fitxatu nahiko balu ez gurekela eskeintza kontutan hartuko. Beti ere konbinaketaren bat egin genezake. Atzeritar bat utzi beste bat fitxatzeko, edo, ez dakit...

EGUNKARIA.— Miguel Solari aurtun bukatzen zaio kontratua. Astearteko zuzendaritzaren bilera bere etorkizunaz hitz egin zenuten. Segituko du ala ez?

EZKURRA.— Denboraldi amaitu arte ez dugu ezer esanen. Gainera oraindik ez dugu ezer erabaki.

EGUNKARIA.— Osasunak datorren urteari begira arazo larriak eduki ditzazke atezainekin. Unanuk aulkia berotzen jarraitzeko, taldean segitu nahi ez dela adierazi du. Zer gertatuko da?

EZKURRA.— Atezain bakar batekin ez gara geldituko. Egoera ulertu beharra dago. Nik ederki ulertzen dut Unanuk esaten duena. Arazoa da Osasuna eta Unanukaren interesak kontutan hartu behar ditugula.

NOSKI
JATOR

ZVLDI ERBA

